



Altor Mendiluze eta Xabier Legarreta bertsoariak ere fin aritu ziren taula gainetik, Txotxberri jaiazen egun handia girotzeko ahaleginetan.

Andoni CANELLADA

Txotxberri festa, sagardoari ongietorria egin eta tradiziozko bilakatu den zita

Sagardogintzaren inguruan bigarren aldiz antolatutako jaiak arrakasta handia izan zuen

Herriko kirol zein kultur elkarte, sagardogile eta udaletxeko ordezkariak pozik daude Txotxberri festaren bigarren edizioak izandako arrakastarekin. Sagardogin-

tzarekin lotutako egitarau polita osatu dute aurten ere, eta jendeak espero baino hobeto erantzun du. Prestatutako karpan, eta inguruan sagardo ugari, abere eta ba-

razki azokak, artisauen erakusketa, bakailao tortilla lehiaketa, dantzaldiak, bazkari eta afari herrikoiak, abesbatzak, haur jolasak eta mendi irteerak izan dira.

Iker BARANDIARAN | ASTIGARRAGA

Dagoeneko aurtengo sagardo garaia hasia dela ezagun bada ere, Astigarragako biztanleek ahalegin berezia egin dute bigarren aldiz tradiziozko edari honi ongietorri berezia egiteko Txotxberri Festa antolatuz. Eta merezi izan du, iaz bildutako jende kopuruaren hirukoitza lortu baitute, ospakizun hau tradiziozko hitzordu bilakatu.

Udalerriko hainbat kirol zein kultur elkarte eta sagardogileak batu eta udaletxearen laguntzaz iaz bezala asteburu osoan zehar luzatu den jai erraldoia antolatu dute sagardo eta sagardogintzaren inguruan. Joseba Barandiaran enparantza ia osoa karpa batekin estali eta egitarau polita izan dute honen barnean.

Ostiralean, karpa eta sagardo upelak ireki zituztenetik jai giroa herri osoan hedatu da. Ostiralean bertan, pintxo hornitutako sagardo berriaren dastaketaz, haur jolasez eta trikitiaz osatu zuten herritar zein gerturatuak. Larunbatean, berriz, Astigarraga eta Hernaniko abesbatza banak kantaldia eskaini, primario herri afaria izan eta Tapia eta Leturia bikote entzutetsuak bigarren egunari amaiera polita eman zion, karpan zegoen jende guztia dantzan jarri.

Atzokoa, ordea, egun handiena izan zen. Karpa eta sagardoaren inguruko ekitaldiak goizetik hasi ziren. 8.30ean abiatuta, 20 lagunetik gora sagardotegiz sa-

tan zehar, Astigarragako ingurune historikoari errepaso egin eta udalerriko lurzoruetan zehar sakabanatuta dauden 17 sagardotegici bisita egin zieten, bertsoak kantatuz eta noizbehinka sagardo freskoaren bitartez atseden hartuz.

Mendigoizaleak karpara bueltatzerako, sagardoaren jai-gunea pil-pilean zegoen. Bertan prestatutako abere eta bazazki feriek zein artisau lanen erakusketak jende ugari erakarri baitzuten.

Gunean jarritako zazpi upeletan txotx egin ahal izateko derrigorrezkoa zen edalontzia eskutan zutela jende andana ibili zen, bildutako artisauen lanak jarraituz, abereei so eginez edota gazta zein txistorra taloak dastatzen. Artisautza postuen artean, upe-

lak, zumitzarekin egindako saskiak, zintzarriak, eskuareak eta beste batzuen langintza ikasteko parada proposa izan zen. Horretaz gain, hurrekin gerturatutakoek entretenimendu handia izan zuten basurde txiki, zakur jaio berri, oilo, txita eta bestelakoeekin gozatuz.

Bakailao tortilla lehiaketa ere eguerdi partean izan zen. Aurten, zortzi lagunek hartu dute parte, hauen artean bi bertsolari. Arrautza, bakailao, tipula, piper berde eta perrexila erabiliz, fin baino petral ibili ziren batzuk eta azkenean saria herriko Ainhoa Olaztiegik jaso zuen. Epaimahaiak erabakia hartu ondoren, ikusleriak zitu bizian desagertarazi zituen lehiaketako tortilla goxoak.

Bazkal ordua iritsi bezain laster, erakusketak jaso, karpa barnea txukundu eta berehala bazkari herrikoirako mahaia eta 300 bat plater prestatu zituzten.

Bazkaldu ondoren, sagardogintzarekin zuzenki lotutako herri kirol originalak jokatu ziren. Hiru astigar zuhaitzetan zeuden sagarrak makilekin bota eta lurretik kizkiekin jaso behar izan zituzten. Ondoren, erdiko zamaz -150 bat kiloz- hornitutako lera plazaren inguruan garraiatu, eta, azkenean, matxakaraino eramane zuten. Giro polita izan zen eta gerturatutako asko txundituta geratu ziren jokoek sagardogintzarekin zuten loturarengatik.

Rezolakoei prestatutako alkoholik gabeko sagardo, zizar, upe- lak ere eman zuen zeresanik.